



YU LING

Antton Irusta

*Enrique Morenteren marrazkiak*

Desclée De Brouwer



*Yu Ling dut izena eta Pekinen bizi naiz, Txinako hiriburuan. Liburu zaharretan irakurtzen baduzu, Pekin Hiri debekatutzat hartu dute historiagileek, Pekinen ehunka urtetan zehar, enperadoreak baino ezin baitziren sartu Hiri debekatuan.*

*Entzun al duzu inoiz harresi handiaren istorioa?*

*Harresi izugarria da, munduan denik handiena. 3.600 kilometro luze da, pentsa zein luzea.*

*Eta ba al dakizu zertarako egin zuten harresi izugarri hori? Bada*



*Txinako inperioa etsaiengandik defendatzeko.*

*Tsin izeneko enperadoreak agindu zuen harresia eraikitzeko. Txinaren beraren izena ere, Tsin enperadore horrengandik omen dator.*

*Txinako harresi handia duela 2.000 urte inguru hasi ziren eraikitzen eta ehunka urte behar izan zituzten guztiz amaitzeko. Lurralde osoko langileak ere milioika behar izan ziren harresia eraikitzeko, hain da luzea!*

*Zerutik begiratuta, bihurgunez josirik dago harresia.*

*Zergatik ote da harresi bihurria eta ez zuzena?*

*Kondairak dioenez, zimenduak bota eta elurte batek lanak geldit-*



*tu zituen. Elurraren hezetasunaren erruz, adreiluak bigundu egin ziren.*

*Herensugea harresiaren ondotik igaro omen zen eta, oharkabean, murru bigunaren kontra lo geratu zen.*

*Eta hala eman zion bere itxura polita.*

*Aitona-amonekin eta gurasoekin bizi naiz. Hauek hiriko banku batean egiten dute lan, Tong Xian izeneko auzoan. Txinatarrek abizena jartzen dute aurretik eta gero norberaren izena. Honenbestez, Yu familiaren izena da, baina Txinan norbaiti deitzeko bi izenak erabiltzen direnez gero, Yu Ling dut izena.*



*“Baba” eta “mama” deitzen diet gurasoei; aitonari “ye-ye” eta amonari “nai-nai”. Txinako ume gehienek bezala, ez dut ez nebarik eta ez ahizparik. Txinan mila milioi lagun baino gehiago bizi dira eta biztanle kopurua azkar hazten bada, Gobernuak beldur da ez ote den denentzat nahikoa elikagai eta lur izango. Horregatik, gaur egun, familia gehienek ume bakarra daukagu.*

*Nire etxea adreiluzkoa da eta teilaz estalita dago. Etxeko sei gelak atari baten inguruan daude eta beste familia batekin banatzen dugu bainugela.*

*Gehien gustatzen zaidan txokoa egongela da, telebista eta kolore-*



*tako hogei arrain dituen arrainontzi bat baitaude bertan.*

*Lingek “bihotz handikoa, zoriontsua eta garbia” esan nahi du. Handitan artisautza irakatsiko dut, baina, egia esan, ez dut hazi nahi, zeren helduek ez baitute umeeek adina denbora izaten jolasteko. Jolasean ari ez naizenean irakurtzea gustatzen zait, batez ere fantasiako eta Txinako ipuinak. Telebistan marrazki bizidunak ikustea ere gustatzen zait.*

*Gustuko dut eskulanak eta artisautzan aritzea. Lagunei mo-zorroak egiten dizkiet; lehenago ebaki, itxura eman eta ondoren margotu.*

